

EXPOLANGUES

Hizkuntz eta Kulturaren II. Nazioarteko Astea

1. Prestaketa

1983.eko Maiatzaren 30ean EXPOLANGUES delako Erakusketaburuak gomita igorri zion Euskaltzainburuordeari hurrengo erakustaldian Euskaltzaindia partaide izan zedin.

Euskaltzaindiak Uztailaren 29an Bilbon egin zuen batzarrean onartu zuen gomita eta joatea erabaki, honen antolaketarako Batzordea izendatuz: J. Haritschelhar, J. L. Lizundia, J. A. Arana, J. J. Zearreta eta R. M.^a Arza.

Zenbait harreman izan, dirulaguntza eskari eta prestatze bilera batzu egin ondoren, antolaketa batzordea Abenduaren 16an bildu zen Donostian, Abenduaren 30ean Euskaltzaindiari aurkeztuko zitzaion egitaraua burutzeko. Euskaltzaindiaren batzarrean hainbat ohar eta aholku jaso ondoren, 1984.eko Urtarrilaren 10ean, Bilbon egindako bileran, EXPOLANGUESen agertuko zen azpiegitura, eramango ziren liburuen zerrenda, bidaia gestioak eta abar erabaki ziren. Era berean, Aduanar eta UZEI, Elkar, Hordago argitaratzaileekin izan ondoren eramango ziren gauzen zerrenda egiten hasi ziren. Denetara 401 liburu bildu ziren eta Bilboko Merkatal Ganbararen laguntzaz "Cuadernos ATA" direlakoak bete.

Urtarrilaren 21ean komunikabideentzako txostena prestatu eta France Press, Sud-Ouest, Cambio 16, Vasco Press, Irratiak, ETB eta abarri banatu zitzairen.

Urtarrilaren 23an J. A. Arana eta J. J. Zearreta jaunak arduratu ziren prestatuko liburu kutxak Irunetik Parisera igortzeko. Berberak egun berean abiatu ziren Parisera trenez. Biharamunean, Parisen, Olivier Giry parisarra, Aitor Orobengoa arrasatearra eta Iñaki Arriola bergararrak lagundurik, Austerlitz geltokitik Gran Palais erakustokira eraman zuten material guztia. Bertan Standa ikustatu eta beharrezko zituzten mahai, aulki eta abar alokatu ondoren, Standa atontzeari ekin zioten.

Urtarrilaren 25ean, asteazkenez, goizeko hamarretan zabaldu zen EXPOLANGUES Erakusketa. Baina arratsaldeko 3ak arte ez zen ofizialki ireki, Frantziako Hezkuntza Ministerria zen Alain Savary jauna agertu zenean, noski. Hirurak inguruan izan genuen lehen bisita ofiziala: Espainiako Enbaxadorea, Joan Raventos jauna etorri zen gu agurtzera hainbat laguntzaileekin: Arturo Morales jauna, Enbaxadan Kultur Saileko Kontseilaria; Fernando Belloso jauna, Kultur Laguntzailea; Mariano Alonso Aberasturi, Atzerrietako Ministraritzan Kultur Harremanetan Buruorde Orokorra eta Carlos Romany Sanchez, Atzerrietako Ministraritzan Entzunikusgailuen Burua. Catalunyakoak eta Galiziakoak bezala Espainiako standean gu ez egotea penagarria zela adierazi ziguten eta hurrengo batetan beste era batetara egin beharko direla gauzak aitortu zuten. Enbaxadan datzan Biblioteka ikustera gon-

bidatu gintuzten eta baiezkotan geratu ginen. Atzetik zetorren Alain Savary Frantziako Ministraria eta gu agurtzera aurreratu zen; gure erakusketaren azalpentxo bat egiteko aukera eman zigun eta argazkietan geratu zen bisita honen lekukotasuna.

Erakusketa goizeko hamarretatik arratsaldeko zazpiak arte zabalik egon zen egunero, baina bederatzi t'erdietatik eta arratsaldeko zazpi t'erdia arte egon beharra ikusi zen gauzak ongi zuzentzeko eta lapurketak ez gertatzeko.

Erakusketaren egunetan, Standean egondakoak ondoko hauek dira: J. Haritschelhar, E. Knörr, J. A. Arana, J. L. Lizundia eta J. J. Zearreta.

2. Euskaltzaindiaren Standa

Stand nahiko nabarmenean gertatu zen, alde batetik UNESCOren Stand ondo ondoan kokatua baitzegoen, eta bestetik ikurrina eta guzti harturik zegoelako.

Bestalde Hizkuntzen erakusketa bat den aldetik, guztiz interesgarri gertatzen da gure hizkuntza bezalako batek Stand bakar eta berezia izatea, gehiago nabarmentzen baita.

Xehetasunkeria gehiegi izan zuen Standak. Bisitarien galderak orokorrak ziren. Lehen aipatu bezala, 401 liburu eraman ziren, baina hango giroa ikusiz ez du merezi hainbeste iiburu eramatea. Jon Bilbaoren Bibliografia eta irakasbideak izan ziren gehien erabiliak, baita ere Bonaparteren Mapa ere. Beraz, egin zitzaizkien galdeetatik, badirudi, interesgarriena, Euskararen Status, Estadistika, Grafikoak eta honelako materiala eraman beharko litzatekeela.

3. Bisitariak

Lehen hiru egunetan jende gutxi etorri zen. Asteburuan gehiago. Etorritakoetan gehienak frankofonoak izan ziren. Euskaldun zenbait ere agertu ziren. Etorri zirenetarik %10 edo gelditzen zen standean eta horretatik hiruk edo egiten zuten galdearen bat.

Bisitari guztiak aipagarri badira ere, etorritakoen artean **J. Olson**: Parisen telefonoz euskara irakasle; **Erwin Wenrli**: suizarra, aurtan Catalunyako kultur gaiei buruz erakusketa bat antolatu duena eta datorren urtean euskararekin berdin egin nahi duena; **Asher Steru**: Ulpan Akira-ko ordezkaria; **S.I.A.C.E.**: Hiztegietan berezitasuna daramana eta euskal hiztegien zerrenda bat eskatu zuena; **Beatriz Traburu**: *El Correo Español-El Pueblo Vasco* egunkariaren ordezkaria Parisen; **Paul Arnaud**: *Le mystère de la Langue Basquere* egilea; **Montserrat Beses**: Catalunyako Tebistaren ordezkaria Parisen.

4. EXPOLANGUES, orokorki

Erakusketa hasi orduko datu ofizialak baizik ez dauzkagu eskuartean eta horregatik honekin eta guk hartutakoez baliatu behar gara. Erakusketaren planoan agertzen denez 150 stand jarri dira aurtan; baina kasu batzuetan stand bakoitzean bi edo hiru erakunde zeuden, esaterako, Espainiako stand ofizialean, Espaina bera, Catalunya eta Galizia agertzen ziren. Politika ez ezik kulturak eta hizkuntzak hartuz gero, 25 herri egon dira aurtengo Expolangues-en: Hegoaldeko Afrika (stand 1), Alemania

(6), Alsazia (1), Arabia (1), Armenia (2), Belgika (7), Canada (2), Catalunya (1), Corcega (2), China (1), Errusia (1), Espainia (4), Estatu Batuak (1), Euskadi (2), Frantzia (30), Alizia (1), Grezia (1), Ingalaterra (11), Irlanda (1), Israel (1), Italia (5), Kurdistan (1), Marokko (1), Okzitania (1) eta Portugal (2). Euskadiko biak ginen Euskaltzaindia eta Iparraldetik Seaska, beste batzuekin batera haurren irakaskuntza sailean. Hizkuntza konkretuak erakusten zituztenetatik aparte, bazeuden beste stand batzuek ere: ugariak hizkuntzen irakaskuntzarako, eta itzulpenetarako tresnak agertzen zituztenak, hots, ordenagailuak, videokasetak, magnetoskopioak, etabar.; halakoak 25 stand zeuden, benetan ikusgarriak, eta hurrengo batean komeniko litzateke teknika berri hauek ikusteko baten bat joatea. Hizkuntzen pedagogia irakasteko beste 20 stand zeuden. Hiztegiak eta hiztegi saltzaileak, 10 stand. Linguistikako argitaratzaileak 10. Turismoa bultzatzen zutenak 13. Eta azkenean, Ministraritzen eta erakunde ofizialak (ONU, UNESCO, etabar) 15 stand. Zenbait ikusle azaldu diren EXPOLANGUESera zaila da jakitea, gure ingurutik ez ziren denak pasatzen eta. Gure ingurutik 6000 ikusle edo pasatu zirela esango genuke, baina hauetatik 600 edo geratuko ziren gure erakusketa ikusten.

5. Bestelako harremanak

Urtarrilaren 31an, Espainiako Enbaxadorea Arturo Morales jauna agurtu ondoren, Biblioteca Española ikustera joan ziren gure ordezkariak. Gerra denboran Euskal Gobernuak zeukan egoitzan datza orain Espainiako Enbaxada, hots, Avenue Marceau, 11. Bibliotekako zuzendaria zen Fernando Martinez jaunarekin izan ziren.

Euskal gaiak urri dira Biblioteca honetan eta Euskaltzaindiaren katalogoa bidaltzeko gelditu ziren.

6. Gerora begira

6.1. Antolaketa eta azpiegitura

Ez da posible ez eta komenigarri pertsona bakar batzuek egun osoa eta egun guztietan erakusketan izatea. Bestalde, euskaraz gain, frantses eta ingeles dakiten laguntzaile batzuren eza nabarmentzen zen.

6.2. Erakusgailuak

Aurrez prestatu behar da Euskararen Historia eta egoera azaltzen duena. Bestalde gorago aipatu bezala, grafiko ugari eta ikusgarri.

Ikus-entzun materiala ere oso ona dela dirudi (Bertsolariak, ETB, Krilak, Musika).

Saltzeko materiala eramatea alferrikoa da. Hobe, Euskaltzaindiaren eta bestelako argitaratzaileen katalogoak eramatea. Elektronik tresnak ere bertatik eramatea hobe baino ez.

6.3. Hutsune nabari bat aurkitu zen Parisko egonaldian: euskal gaien biblioteka baten eza. Euskal Etxeak ez dauka ezertxo eta izateko tokirik ere ez. Euskal Etxea Rue Duban delakoan dago, Euskal Gobernuaren egoitzatik hurbil. Etxe honetan,

gerra denborako artxiboa dagoela esan zaigu. Euskal Biblioteka bat hemen kokatzea posible izango litzatekeen ikusi beharko litzateke.

6.4. Ikusleen artean bat baino gehiagok galdetu zuen EXPOLANGUESen euskal liburudendarik Parisen dagoen. Hutsune hau ere bete beharko litzateke. Pariseko liburudenda batzuetatik jasotzen dira katalogoak Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekan. Halako batekin hitz egin eta behar bada, bertan euskal sail bat bertan jar daiteke. Euskal Herriko Argitaratzaileekin akordio batera helduz gero halako irtenbide bat bideratzea egokia izango litzateke, baina zeregin hau ezta zuzenean Euskaltzaindiari dagokiona.

Amaitzeko, esperientzia oso interesgarri eta oparotsua gertatu da.

Hurrengoia prestatzen hasi beharko dugu.